

-BIDEA BEZEROENGANA IRISTEKO/HARREMANA BEZEROEKIN

Bezeroekin harremanetan jartzeko, kalean zehar propaganda egingo nuke foiletoak banatuz. Interneten edo egunkarian iragarkiak jartzea ere ez litzateke idea txarra izango. Bi modu hauetara denda pertsona askok ezagutzea lortuko nuke, baina lokalean kontsumitzera bultzatzeko, beherapen batzuk egingo nituzke: Adibidez, asteko egun bat aukeratu eta prezioak jaitsi egingo nituzke egun horietarako bakarrik (Telepizzak edo 100 Montaditos-ek egiten duten bezala). Gainera, menuak sortzea ere prezioak jaisteko modu bat izango litzateke (zeharkako modua deitu daiteke). Adibidez, zereal katilukada bat kafesnearekin (menuan), zereal katilukada bat eta kafesne bat separatuta erostea baino merkeago jartzea.

Bezeroekin harremana zuzena izango litzateke; bezeroek kutxan langile bati bere eskaria egin ondoren, honek bere mahaira eramango dio. Zerbitzariak adeitsuak izango dira eta bezeroak beti errespetuz tratatuko dituzte.